

## DIRU-SARRERAK

Hasteko esan beharra dago gure diru-sarrerak pixka bat bereziak izan beharko direla, zeren eta guk ez dugu ezer esportatzen edo inportatzen. Horregatik, gure bezeroa, Euskal Gobernuak izango da, eta hori izango da gure aukera bakarra produktu hau aurrera eramateko.

Ez dakigu zenbat ordaintzeko prest egongo diren, baina gure ustez produktu erakargarria izanez kopuru nahiko handia izango dela, berritzailea izateagatik. Gainera gure diru-sarrerak izateko bi moduak pentsatu ditugu, noski bietan gure eroslea Gobernuak da baina bi motatako erak pentsatu ditugu:

1. Lehenik, pentsatu duguna izan da metro, Kbus edo Bizkaibus bide bakoitzetik portzentajea bat hortik gure diru sarrerak izatea. Hau da, imajina dezagun metro bidai bat euro bateko kostua daukala gure bezeroarentzat. Gure aplikazioa erabiliz euro honetatik 3% 0,03 zentimo izanez, horiek gurentzat izango ziren. Honek desabantaila oso argi bat dauka, Euskal gobernuak askotan esan dutenez metroa defizit oso handia dauka. Defizit honi, gainera, kontuan hartu behar badugu gure aplikazioarekin % bat galduko dutela, ez da guztiz ideia on bat, baina nahiz eta hau izan ideia hau kontuan hartu behar dugu.
2. Beste aldetik, aipatu dugun defizit hori kontuan ez izateko, ideia sinpleago bat burutu dugu, non Euskal gobernuari "Transpowl" aplikazioa osoa saldu egiten dugun. Hau da, gure ideia osoa saldu egiten dugu eta diru kopuru bat jasotzen dugu. Ideia hau nahiko efizientea izan ahal da, baina alde batetik dirua galdu egin ahal dugu, zeren eta agian honekin 100.000 euro jasotzen dugu baina beste moduarekin denborarekin diru gehiago jaso egin ahal dugu.

Ikusten den moduan bi ideia gauza onak eta txarrak dituzte, eta hortaz kontzienteak gara. Horrekin espero dugu denborarekin pixka bat gure ideiak zentratzea eta ikustea zer izango den gurentzat eta Euskal Gobernuarentzat hobierena.